

musika ♦ SAVINA YANNATOU

Greziako eta inguruko lurraldeetako xarma

Artista: Savina Yannatou eta Primavera en Saloniko. **Non:** Barakaldo antzokiko Areto Balioanitzean. **Noiz:** Maiatzak 6. **Jende kopurua:** 150 lagun. **Iraupena:** Ordubete eta 15 minutu. **Sarrera:** 1.500 pta.

BI EKITALDI segidan egin behar zituen Greziako kantari honek, antzokiaren konpromisoak zirela eta. Lehenengoa beteta egon zen, eta bigarrenean pertsona gutxi falta ziren jesarlekuak betetzeko.

Hogeitortzi darama Savina Yannatou irribarretsua bidean, eta zaila da hemen edo hor kokatzea: denetarik egiten du, eta dena ondo; berdin zaio emakume honi Greziako folklorea, sehaska kantak, Mediterraneoko aldeko sustrai ezberdinak erabiltzea, kantu erlijiosoak batzea edo Europako kantu bereziak bereganatzea. Azkenean, ahots dotore horrekin, bere etxera darama altxor zabala hau.

A *capella* hasi zen, Traziako kantu zahar batez. Amaitu bezain laster Primavera en Saloniko —horrela da bandaren izena, gaztelania hutsean— taldeko lagunek *Los biblicos* kantu sefardi bati ekin zioten txaloak agertu baino lehen. Savinak ez du gaztelaniaz hitz egiten, baina kantu bakoitzaren azalpena egin zuen, eta leerro batzuk ere itzuli zituen. Jarraian Bulgariako kantu bat entzun genuen, orain arte grabatu ez duena —gogora dezagun hamazortzi lan grabatu dituela Savinak oraingo—. Italia aldera ere joan zen, Sardinia *Ballo sardo*, *Lu purtuni* dramatikoak eta *Madonna de la Grazia* tarantella kutsagarria kantatzeko, azken hori oso txalotua izan zen.

Lehenbiziko lau kantuak entzun ondoren, Savinaren ahotsaren kalitateaz ohartu ginen: primeran kantatzeaz



Savina Yannatou kantaria.

gain —izugarriak dira tonu altuetan egiten dituen ariketak—, instrumentu moduan erabiltzen du eztarria soinu bitxiak sortzearen. Musika-riek ere zenbait esperimendu egin zuten iparra galdu gabe. Puntako musikariak dira, zailantzarik gabe, eta balioanitzak ere bai: gehienak instrumentu ezberdinak jo zituzten kantu bakoitzak eskatzen zuen giroa aurkitu arte. Hasieran serio-serio, ondoren erlaxatzen hasteko. Biolina, akordeoia, kanokania, trasterik gabeko kontrabaxu elektrikoa, *oud*-a, gitarra, *tamboura*, *darbuca*, *bendirra*, *ney*-a... Gainera, ia denak akustikoak dira eta mikroen bidez entzuten dira. Hori, gaur egungo *world music* honetan, eskertzekoa da.

Bidaia luzea denbora laburrean

Esan bezala, Savinaren bidaia luzea izan zen: Armenia, Gualupe, Kongo, Albania, Korsika eta Esmirnara, Andaluziako arabiar leloak eta sefardien kultura ahaztu gabe.

Bidaia luzea, bai, baina erlojuari begira labur samar iruditu zitzaigun bigarren ekitaldi hau: lehenengo hamabi kantuak bete ondoren agur esan zigun. Txaloei ekin ondoren bis pare bat lortu genuen: hasieran Greziako kantu tradizional bat eta bigarrenean Savinak, ohi duenez, *a capella*-ko sehaska kantu hunkigarria eskaini zigun. Horrela hasi eta horrela amaitu. Ordurako kantariaren eztarria nekatzen hasia zegoen eta ekitaldiaren bigarren atalean estulka harrapatu genuen noizean behin. Dena den, mikroaren aurrean erne eta ausart ibili zen, huts egin gabe.

Musika ederra da Savinak eta Primavera en Salonikok egiten dutena. Mediterraneoko aldeko giro horiek noizean behin Maria del Mar Bonetek eskaini dizkigunak dira. Entzun denez sustrai aintz dago Greziako musikan, non Ekialdeko eta Mendebaldeko paisaiak elkartzen diren. Entzungarria, benetan, musikazaleentzako altxor hau.

Joseba Martin

antzerkia ♦ MANDALA

Funtsezko kontuak

Izenburua: Mandala. **Konpainia:** Tránsit. **Zuzendaritza artistikoa eta koreografia:** M. Rovira. **Musika:** E. Alfonso. **Jantziak:** E. Sein. **M. Rovira. Argiztaketa:** X. Valls. **Dantzariak:** Y. Brooks, A. Costa, L. Vilar, M. Gomis, L. Venancio, S. Rowinsky. **Non:** Barakaldo antzokian. **Noiz:** Maiatzak 5.

MAIATZAREKIN batera loratzen da dantza, eta hilaren lehen asteburuan Maria Roviraren Tránsit konpainia igaro da Barakaldo antzokitik, *Mandala* izeneko lanarekin.

Mandala musika, argia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da. Esku-programan azaltzen diguten bezala, mandalak meditaziorako diagrama esoterikoak dira, bizitzaren labirintoak ordezkatzeko dituztenak. Haien bitartez energiaren eta ezagupenaren muinerantz hurbildu gaitezke, eta efektu berbera lortzen du Maria Rovirak zirrarez beteriko ikuskari honekin.

Gauza asko gertatzen dira artifiziorik gabeko maisulan honetan, gehiegi eta guzti agian, haietariko bakoitza gogoratu eta deskribatu ahal izateko. Gauza asko eta ezer ez aldi berean, gure begien aurrean maila goreneko dantza besterik ez dagoelako —besterik ez, lagunok—, maila goreneko argiztatze batean murgilduta eta maila goreneko musika eder batek lagunduta.

Funtsezko auzietara jo

Izan ere, Maria Rovirak inolako kontzesiorik gabe, zehaztasun osoz, artez-arteaz jotzen du dantza garaikideak planteatuta dituen auzi guztien muinetaraino. Taula gainean ez dago dantzatik aparte beste ezer, eta funtsezko kontuak besterik ez

dira azaleratzen hasiera-hasieratik amaitu arte, solo, duo, hirukote edota taldeko pasarteetan. Kolore argiz eta lisoiez jantzitako hiru neskek eta larruzko prakak besterik ez daramaten hiru mutilek pisurik ez balute bezala dantzatzen dute gris urdinxka koloreko argian bilduta, eta dantzari bakoitzak ia ukitu barik erabiltzen ditu besteen gorputzak hurrengo pauso, jirabira edota jauzi kementsua burutzeko, bini- lo kutsu berezia duen musika pausatu baina adoretu batek inguratuta.

Taula gainean gertatzen denetik ezin ditugu gure begiak aldendu, harrapaturik daudelako dantza garaikideak daukan ahalmen artistiko izugarria. Noizean behin bat-bateko geldialdiak tartekatzen dira dantzariak osaturiko multzo eskultoriko dinamikoen artean, eta keinu dramatikoaren erabilera neurtuak dantzaren indarra areagotzen du. Funtsean, bertan jazotzen dena burutzearen dotoretasun gorena bezain eragingarria da.

Mandala-n ikusten duguna lerro zuzenetik datorkigu XX. mendearen erdian sortutako dantza garaikidearen maisuengandik, eta, haiek bezala, dantza klasikoaren zordun da nonbait. Baina, maisu handi haiek utzitako herentziatik haratago, berebiziko sentsibilitatea eta gizatasun sakona erakusten ditu Rovirak zeharo kontzeptuala izan daitekeen baina batere hotz uzten ez gaituen lan koreografiko honetan.

Oraindik ere *Mandala* ikusteko aukera bi dituzue, Beasainen eta Irunen izango baita hil honen bigarren asteburuan, Maiatza Dantzen eskutik.

Agus Perez



ESKELAK



Maialen Arribas Manzano

Maialen genuen guk maite genuen txoria, bere udaberrian, ihesi joan zaigu butsik utziaz kabia musu bat Maialen!!!

Eskerronez,
AITOR IKASTOLAKO
guraso, langile eta ikasle guztiak.

2000ko maiatzak 9



Maialen Arribas Manzano

Dilin-dalan jolasean orain zurekin orain nirekin beti gure bibotzean.

ANTXETA TTANTTAKUN
Aisialdi Elkartek

Donostia, 2000ko maiatzak 9

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(943) 300 222